

Erronka:

Nola handitu genezake nekazari eta abeltzainen autonomia, beren ustiatzei buruzko informazioa kontsultatzeko eta izapideak egiteko garaian?

Azpi-erronkak:

- Nola **zentraliza genezake** ustiatzei buruzko informazio guztia, eta nola jarri modu eskuragarrian sektoreko pertsona bakoitzarentzat?
- Nola **murriztu dezakegu nekazari eta abeltzainek administrazio-izapideetan ematen duten denbora eta esfortzua?**
- Nola **erraztu EGOITZA** elektronikoaren tramiteetara sarbidea, izapidetze-prozesua arintzeko?
- Nola **bermatu daiteke informazioa eta tramiteak modu argi eta ulerterrazean aurkezten direla**, sektoreko profil guztientzat?

Testuingurua:

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak eredu berri baterantz egin nahi du, sektoreko pertsonen informazioa kontsultatzeko eta izapideak egiteko autonomia handiagoa izan dezaten.

Helburua hirugarrenen mendekotasuna gutxitzea eta autokudeaketa oztopatzen duten arazoak arintzea da.

Egin den analisiak sektoreari buruzko informazioa ez dagoela eskuragarri erakusten du. Nekazariak eta abeltzainek informazioa lortu nahi dutenean, iturri askotara jo behar izaten dute, eta horrek zaildu egiten du informazioa aurkitzea eta ulertzea.

Bizkaiko Foru Aldundiak ustiatzei buruzko informazio guztia duen arren, datu horiek ez daude gaur egun ikusgai, eta nekazariak zein abeltzainek ez dute aukera informazioa zuzenean eta modu autonomoan kontsultatzeko. Hala ere, datu horiek funtsezkoak dira hainbat izapidetarako, besteak beste animalien mugimendu-gidak egiteko. Informazio hori eurek eskuratu ezin dutenez, askotan Gertu bulegoetara edo beren elkarteetara jo behar izaten dute laguntza eskatzeko.

Laguntza-iturri horiek dira, halaber, nekazariak eta abeltzainek erabiltzen dituzten lekuak, Bizkaiko Foru Aldundiaren jakinarazpenak jasotzen dituztenean eta ez dituztenean ondo ulertzen. Jakinarazpen horiek posta arruntez iristen dira, eta ia tramite eta komunikazio guztiak bide horretatik egiten dira:

laguntzak eta diru-laguntzak onartu edo ukatu dituzten, animalien blokeoak arrazoi sanitarioengatik, osasun-murrizketa berriak...

Horrek guztiak, administrazio-izapideetara sartzeko dagoen zailtasunarekin eta komunikazio-kanal argien faltarekin batera, frustrazioa sortzen du, denbora galtzea dakar eta hirugarrenen mendekotasun handia eragiten du izapideak bukatzeko.

Bestalde, nekazaritza eta abeltzaintza sektoreko pertsonak hainbat oztopo dituzte gaur egun:

- Batez besteko adin handia, sektorearen zahartzeagatik.
- Arrakala digitala, gaitasun eta hezkuntza teknologiko baxua dutelako.
- Internet-konexio arazoak landa-eremuetan.
- Komunikazioetan erabiltzen diren hizkera teknikoak ulertzeko zailtasunak.

Egindako analisian ikus daitekeenez, nekazariak eta abeltzainak telefono mugikorra erabiltzen dute batez ere, bai komunikatzeko bai informazioa kontsultatzeko (“ordenagailua baino azkarragoa da eta beti eskura dagoelako”).

Era berean, ondorioztatzen da SEDE elektronikora sartzeak oztopo asko dituela, egungo identifikazio-sistemagatik eta behar dituzten tramiteak aurkitzeko nabigazioaren konplexutasunagatik.

Horrek guztiorrek autonomia mugatu eta izapideak egiteko presentzialtasunaren beharra handitzen du. Gainera, askotan eta maiztasun handiz bete behar izaten dituzte tramiteak, ustiategiak behar bezala kudeatu ahal izateko. Horregatik, sektoreko pertsonak prozesu argiagoak, zentralizatuak eta epeak eta baldintzak aurrez jakiten lagunduko duten sistemak eskertuko lituzkete.

Egoera honek aukera ematen du informazioa beste modu batean antolatu eta komunikatzeko, sektorearen beharretara benetan egokitutako sarbide erraz, garden eta ulerterraza eskaini ahal izateko.

Gaur egun, Abeltzaintza Zerbitzuak MUGIDE izeneko barne-aplikazioa erabiltzen du informazio hori guztia kudeatzeko. Aplikazioak bi ikuspegi nagusi ditu informazioa kontsultatu eta ekintzak egiteko: ustiategiaren ikuspegia eta animalien ikuspegia. Ondoren ikuspegi bakoitzak eskaintzen dituen funtzionalitateak azaltzen dira:

1. Ustiategiaren Ikuspegia

Kontsulta daitekeen informazioa:

- Azpi-ustiategiak, haien egoerarekin eta sarrera/irteera murrizketekin.
- Ustiategian dauden animaliak (kokatuta daudenak).
- Ustiategiaren jabetzako animaliak.

- Gidak:
 - Ustiategitik bidalitako gidak.
 - Ustiategian jasotako gidak.
- Krotalak:
 - Ustiategiari esleitutako krotalak.

Egin daitezkeen ekintzak (EGOITZAko tramiteak):

- Espezie bakoitzarentzat bizirako lekualdatze-gidak eskatzea:
 - Behiak (bovinoak)
 - 45 egun baino gutxiagoko animalien bizirako mugimenduak
 - Mendira Igoera
 - Menditik Jaitsiera
 - Ardiak eta Ahuntzak (ovino-caprinoak)
 - Bizkaiko barne-mugimenduak
 - Mendira Igoera
 - Menditik Jaitsiera
 - Zaldiak (équidos)
 - Bizkaiko barne-mugimenduak (ustiategiaren jabetzako animaliak).
 - Mendira Igoera.
 - Menditik Jaitsiera.
- Hiltegiako lekualdatze-gida emititzea
 - Behiak
 - Txerriak
 - Ardiak
 - Ahuntzak
 - Untxiak
- Jaiotze komunikazioa eta BIA (Behien Identifikazio Agiria) jaulkitzea (behiak)
- Krotal bikoiztuen eskaera (behiak)
- Ustiategi-liburuaren eskaera
 - Behiak
 - Ardiak
 - Ahuntzak
 - Zaldiak

2. Animalien Ikuspegia

Kontsulta daitezkeen informazioa:

- Animalien fitxa
- Animalien historikoa

- Mugimenduen historikoa
 - Animalia igaro den ustategien trazabilitatea
- Animaliaaren ezaugarriak
- Animaliaaren baldintza bereziak
- Ondorengoak
- Gizentzeko herrialdeak
- Animalien osasun-informazioa:
 - Kanpaina sanitarioaren fitxa
 - Laborategiko emaitzen txostenak
 - Immobilizatutako animaliak eta arrazoia

Helburuak:

- Ustategiei buruzko informazio **garrantzitsu guztira sarbide erraza eta zentralizatua** bermatzea.
- Izapide administratiboetan ematen den **denbora eta lan-karga murriztea**, ekoizpen-jardueran ez eragiteko.
- Informazioa **ulertzen laguntzea**, hizkera tekniko gehiegi saihestuz eta **argibide garbiak** eskainiz.
- EGOITZA elektronikora sartzeko esperientzia **hobetzea**, egungo identifikazio- eta nabigazio-oztopoak kontuan hartuta, eta **sarbide errazeko pasabidea** bihurtzea.
- **Arrakala digitala gutxitzea**, gaitasun teknologiko baxua duten pertsonak ere parte hartu ahal izan daitezen, bazterkeriarik sortu gabe.
- **Komunikazio argiak** eta informazioaren **aurreikuspena** sustatzea, erabiltzaileek epeak eta betekizun normatiboak aurrez jakin ditzaten.
- Arreta presentzialaren premia eta **hirugarrenen mendekotasuna murriztea**.

Baldintza tekniko orokorrak:

Honako eskakizun teknikoak baloratuko dira:

- **Heldutasun teknologikoaren maila:** $TRL \geq 7$, Benetako ingurune operatibo batean balioztatuta dagoen soluzioa, eta garapen-fase aurreratuan aurkitzen da.
- **Segurtasuna eta pribatutasuna:** Soluzioak derrigorrez bete beharko du Segurtasun Eskema Nazionala (ENS) edo, bestela, maila baliokideko neurriak hartu direla behar bezala justifikatu beharko da. Era berean, datu pertsonalen babesa bermatu beharko da, bai eta eragiketen trazabilitatea eta informazioaren kontrola eta osotasuna ziurtatuko duten auditoretza-mekanismoen erabilgarritasuna ere.

- **Integrazioa eta Elkarreragingarritasuna:** Beharrezkoa denean, soluzioak dauden sistemekin integratzeko aukera eman beharko du, estandarretan oinarritutako APIak edo web-zerbitzuak eskainiz eta kontsumituz. Halaber, sistemen eta datuen arteko elkareragingarritasuna bermatu beharko da, informazioaren truke eraginkor, fidagarria eta koherentea ahalbidetuz.
- **Eskalagarria izatea:** Arkitektura eskalagarria izan beharko da, zerbitzuaren beharren arabera ahalmenaren, errendimenduaren eta baliabideen hedapena modu malgu eta progresiboan ahalbidetzeko gai dena, beti sistemaren eskuragarritasuna edo errendimendua kaltetu gabe.
- **Irisgarritasuna:** Sektore publikoari aplikagarriak zaizkion irisgarritasun-araudiak bete beharko dira, funtzionalitate guztiak irisgarri izan daitezen behar bereziak dituzten erabiltzaileentzat. Era berean, gaitasun digital maila desberdinak dituzten pertsonentzat egokia izan beharko du, indarrean dauden estandar eta legezko eskakizunen arabera.
- **Sinpletasuna:** Soluzio arina, erabiltzeko erraza eta inbaditzaile gutxikoa, barneko langileen ohiko jardunean lan-karga gehigarriarik sortuko ez duena.
- **Hizkuntza-aniztasuna:** Derrigorrezkoa gaztelaniaz eta/edo euskaraz eskuragarri egotea.
- **Diseinu moldakorra (responsive):** Soluzioa guztiz moldakorra izan beharko da, gailu eta pantaila-mota guztietara egokituz.

Baldintza tekniko espezifikoak:

Honako alderdiak baloratuko dira:

- Zehazki, [soluzioak Giltza Identifikazio Sistemekin](#) eta [Administrazio Elektronikoko Egoitzarekin](#) (Egoitza Elektronikoa) integratzeko aukera izan beharko du.
- Web Zerbitzuen bidezko integrazioa: Lehentasunez, integrazioa REST motako web zerbitzuen bidez egingo da, JSON formatuak erabiliz.

Prozesua eta data nagusiak:


Proposamenari erantzuna jasotzeko azken eguna: **2026/02/26**.

Hautaketa-prozesuak honako pausoak izango ditu:

- Gehienez 5 enpresa hautatzea, haien proposamenak planteatutako erronkarekin duen garrantziaren eta egokitapenaren arabera.
- Hautatutako 5 enpresekin elkarriketak egitea, haien jarduera eta balio bereizia ezagutzeko.

- 3 enpresa finalista aukeratzea.
- Finalistek pilotu-proposamena aurrez aurre aurkeztea.
- Enpresa irabazlea eta haren irtenbidea hautatzea.

Irabazten duen soluzioa ezartzeko pilotu-fasea 2026ko maiatzean hasiko da, eta 5–6 hilabeteko iraupena izango du:



Zer eskaintzen da?

1. 5-6 hilabeteko pilotu proiektu bat gauzatzeko aukera, gehienez 35.000 euroko ordainsariarekin, [Ayesa](#) korporazioarekin kontratu pribatu bat sinatuz
2. [Beaz](#)-ek bultzatutako 8 asteko Azelerazio Programarako sarbidea, [BAT B Accelerator Tower](#)-en, honako ildo hauetan laguntza eskainiz:
 - a. Gaitasun-sendotzea
 - b. Mentoretza espezializatua
 - c. Sare-lana (networking)
 - d. Finantza-aholkularitza estrategikoa